ONDARROAKO UDALA

ARTIBAI EGOITZAN ESKU HARTZE PSIKOSOZIALEKO PROGRAMA GARATU ETA GAUZATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Ondarroako Artibai egoitzan bertako nagusiei zuzendutako esku hartze psikosozialeko programa garatu eta gauzatzeko zerbitzua eskaintzea da. Horretarako, alde batetik, dinamizazio edo animazio soziokulturaleko programa gauzatuko da eta, bestetik, psikologo zerbitzua eskainiko zaie egoitzako nagusiei, bakoitzaren beharrizanak identifikatzeko, aztertzeko eta beharrizan horiei erantzuna emateko ekintzak antolatzeko.
Programazioan lan egutegia, lan taldeak, ekintzak eta ebaluazio sistemak azaldu behar dira.

Zerbitzua emango da udalak onartutako hizkuntza-irizpideekin eta emakumeen eta gizonen berdintasun-irizpideekin uztartuta. Izan ere, programa emango baita non eta euskararen arnas gune batean eta horrek eskatzen du, alde batetik, euskararen erabilera bermatu beharra zerbitzuaren jarduera eta harreman guztietan, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatuz; eta bestetik, genero-ikuspegia txertatu beharra zerbitzuaren diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan, arreta berezia eskainiz emakumeengan eragiten duten desberdintasun- eta zaurgarritasun-egoerei.

2. KONTRATUAREN HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK: Programa integratzaile eta global batetik abiatuta, Artibai Egoitzako nagusien beharrizanak betetzen dituen ekintzen multzoa sortuko litzateke.
Hauek dira Esku- hartze Psikosozialeko Programaren bidez lortu nahi diren helburu nagusiak:

*Erabiltzaileen eta beraien familien bizitza kalitatea hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintzak garatzea.

*Erantzuna ematea gaitasun eta autonomia maila desberdinak dituzten pertsonen behar psikosozialei, talde horretan dementzia larriak eta Alzheimer gaixotasuna duten egoiliarrak daudela kontutan hartuta..

*Betetzea, bere jarduketa esparruan, erabiltzaileek adierazitako beharrizanak, eskaerak eta nahiak.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

*Harreman sozialak eta komunikazioa bultzatzeko taldekako jarduera saioak antolatzea eta aurrera eramatea, bakardade edo isolamendu egoerak saihesteko.

*Aldaketa kognitiboak eta jokabide aldaketak aztertzeko taldetako edo banakako saioak antolatzea eta aurrera eramatea: errealitate eta estimulazio alorretan, psikomotrizitatean, erlaxazioan…ea.

*Saio bakoitzaren banakako eta taldeko erregistroa egingo da, ondoren programaren ebaluazioa egiteko.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 06:50:50(UTC) Fecha: 20/07/2026 06:50:50 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 07:10:28(UTC) Fecha: 20/07/2026 07:10:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (221d965d-0b61-4a2b-be1b-b077bfadf019) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

*Egoiliarren gizarteratzeko lana bultzatu jolas ekintzen bidez, nahiz baliabide komunitarioak erabiliz.

*Jolas jarduerak programatzea eta garatzea, hala nola, urtebetetzeko festak, irteerak, paseoak, txangoak…

3 FUNTZIOAK

ANIMAZIO SOZIOKULTURALEKO TEKNIKARIA ETA PSIKOLOGOA:

*Programa osotzeko, zein betetzeko egin beharreko jarduerak diseinatzea, antolatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.

*Diziplinarteko talde teknikoaren bileretan parte hartzea.

*Banakako eta taldeko jarraipenak burutzea.

*Pertsonan oinarritutako arreta planean parte hartzea

*Eguneroko ekintzen partehartzea errejistratu behar da.

PSIKOLOGOAREN FUNTZIOAK:

Goian aipaturiko funtzioez gain, beste hauek ere egin beharko ditu:

*Egoiliarren arazoak eta motibazioak ezagutzea, elkarrizketa pertsonalen bitartez eta arretarako banakako planaren bidez.

*Banakako elkarrizketak egin informazioa jaso eta ekintzak antolatzeko.

*Egoiliarraren sarre egunetik hilabete batera, pasatu beharreko test guztiak pasatuko dizkio nagusiaren egoera pertsonala, kognitiboa eta psikologikoa nolakoak diren ezagutzeko: GDS, MINI MENTAL, CORNEL…

*Txosten teknikoak egin.

*Talde ekintzak antolatu; horien banaketa bakoitzaren maila kognitiboa eta beharrizanak kontuan izanda antolatuko dira.

*Memoria bat aurkeztea urtero, egindako lana orokorrean ebaluatuta.

4 ZERBITZUA EMATEKO MODUA

Kontratua agiri honetan xedatutakoaren arabera bete beharko da, beraz, enpresak aurkeztutako proiektu-teknikoan aipatutako zerbitzuak ematea eta zabaltzea izango du helburu.
Zerbitzua eskaintzen duen enpresaren jarduerak onartzea, gainbegiratzea eta kontrolatzea

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 06:50:50(UTC) Fecha: 20/07/2026 06:50:50 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 07:10:28(UTC) Fecha: 20/07/2026 07:10:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (221d965d-0b61-4a2b-be1b-b077fdadf019) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ONDARROAKO UDALA

Ondarroako Udalari dagokio eta jarduera hauek udal titulartasuneko ekintzak izango dira. Zerbitzua betetzeko baldintzak hauek dira:

1.- Zerbitzua Ondarroako Artibai Egoitzan gauzatuko da.

2.- Egoiliarrekin, familikideekin eta udalarekiko erlazio guztiak euskaraz izango dira.

3.- Aktibitateak astelehenetik ostiralera gauzatuko dira, goizeko 10:00etatik 13:00etara bi animatzaile eta arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara animatzaile bat. Psikologoak berriz, eguneko ordu bat eta 3 minututako jarduna izango du, edo astean 5,15 minutukoa

Hobeto jarduteko egoiliarrak bi taldetan banatuko dira:

A- Norbere kabuz edo laguntza apur bat behar duten egoiliarrak.
B- Laguntza handiagoa behar duten egoiliarrak.

4.-Taldeak burutzea psikologoaren ardura izango da behar diren balorazioak burutzea, ondoren egoiliarrak zein taldetako partaide izan behar diren jakiteko.

5.- Talde bakoitzak denbora tarte desberdinetako saioak egingo ditu egunean zehar, taldearen behar izanen arabera. Saioak aurrera eramaten gizarte hezitzaile, psikologoak edo gizarte edo kultur animatzaileak ibiliko dira.

6.- Egoiliar bakoitzaren bizi istorioa eta Banakako Arreta Plana osatu beharko da.

7.- Hilero egitasmoaren bilakaeraren berri emango zaio zuzendaritzari eta urte amaieran memoria bat egin beharko da. Txosten horretan egitarauetako datuak jaso eta programan adierazitako sistemari jarraituz eboluzioa egin beharko da.

8.-Langilegoaren egutegia eta urteko aktibitateen ordutegia aurkeztu behar dira.

9.- Zerbitzua emango duten langileek esperientzia izan behar dute kontratatutako gaietan.

10.- Fitxak, materiala eta erregistroak prestatzeko erabiliko den denbora ez da egunean ordubetetik gorakoa izango langile guztientzat. Profesionalen erantzukizuna da talde-lanerako koordinazioa.

11.- Zerbitzua euskaraz emango da. Artibai egoitzako langile eta egoiliarrekin hartu eman guztiak, ahoz zein idatziz, euskaraz beteko ditu.

Lan taldeko profesionalen tartean psikologo bat egon beharko da. Honek, sarrera egunetik egoiliarraren bizi istorioa jasoko du eta egokitzapen garaian bere bidelagun izango da dituen zalantzak eta kezkak argitzeko. Horrez gain, urtean behin edo osasun egoera aldaketa batek eskaintzen duen heinean, egoiliar guztiei balorazio testak egiteko (PAI, MEC, GDS...). Psikologoaren bataz besteko dedikazioa %16,2 izango da.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 06:50:50(UTC) Fecha: 20/07/2026 06:50:50 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 07:10:28(UTC) Fecha: 20/07/2026 07:10:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (221d965d-0b61-4a2b-be1b-b077bfadf019) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ONDARROAKO UDALA

5. PROFESIONAL TALDEA

Lan horiek burutzeko behar diren profesionalak hurrengoak dira:

-2 Animazio Soziokulturaleko teknikari:

1 % 69,5eko jardunean

1 % 42,90eko jardunean

-Psikologoa. Psikologoak jendaurrean lan egiteko beharrezkoa den titulazioa izan behar du: Osasun psikologia orokorreko masterra, edota gaitasunen homologazioa. Bere jarduna % 16,2koa izango da

6. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa bidez izango da eta honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat.

- Ekintzen programa, egutegia eta erabiliko den lan metodología Pertsonarengan Oinarritutako Arreta Plana aurrera eramateko. -	15 puntu
- Familiak egoitzako eguneroko jardunean parte izateko antolatuko diren ekintza eta esku hartzeko jarduerak. -	10 puntu
- Egoiliarrak taldeka banatzeko erabiliko den sistema. -	5 puntu
- Erabiliko diren zerbitzuaren ebaluazio eta jarraipen sistemak -	10 puntu
- Herriko talde kulturalekin, zein irakaskuntza zentroekin burutuko diren ekintzak, egoiliarren integrazioa bultzatzeko.	10 puntu
- Eskaintza ekonomikoa	40 puntu
- Formazioa emakume eta gizonen berdintasun arloan	10 puntu

Hortaz, abantailarik gehien duen eskaintza izango da esleitzeko proposatuko dena.

Ondarroan, 2026ko uztailaren 13an
Eneritz Artaetxebarria
Artibai Egoitzako Zuzendaria

EGINBIDEA: Ondarroako alkateak 2026/905 dekretu bidez agiri hau onartu du 2026ko uztailaren 17an

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2026-07-20 06:50:50(UTC) Fecha: 20/07/2026 06:50:50 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ Data: 2026-07-20 07:10:28(UTC) Fecha: 20/07/2026 07:10:28 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotuzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (221d965d-0b61-4a2b-be1b-b077fdadf019) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.